



GOURMETS 2022

2022ko APIRILAK 25-28

Informazio gehiago:

Jon Zabaleta

943 00 02 99

jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Tokia: IFEMA azoka esparrua, Madril

Maiztasuna: Urtean behin

Bisitariaren profila: Banaketako profesionalak (inportatzaileak, esportatzaileak, banaketa handia, HORE.CA. kanaleko espezialistak), ostalaritza eta jatetxeak

Izena emateko epea: 2021eko azaroaren 22a

Azokaren webgunea: www.gourmets.net

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **GOURMETS 2022** azokan Euskadiko elikagaien enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka Madrilen ospatuko da 2022ko apirilaren 25etik 28ra arte.

Egungo egoera dela eta, deialdi honetan adierazten diren datu guztiak **behin betiko egiaztatu gabe** daude, denak COVID19ak eragindako osasun baldintzen eta azokaren antolakuntzak zehazten duen segurtasun protokoloaren menpe baitaude.



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



Azokan parte hartu nahi duten enpresa ekoizleek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza soziala, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik **joateko konpromisoa** eta kuota ordaintzea; beraz, Euskadiko standean sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.
- Muntatzen den egunean enpresak **derrigor egon behar dira**, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

Azokan zehar

- Azokan **Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak** baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan **eman behar da arreta**.
- Azoka amaitzerakoan **produktu guztiak behar bezala jaso** eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.) Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerrako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standa hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigorren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaie arau haustea egin duten enpresari edo enpresei.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaienean entregatu.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA



Parte hartzeko eredua

Zain gaude azokaren antolakuntzak zein segurtasun protokolo ezarriko dituen; beraz, datu hauek gutxi gorabeherakoak dira, eta aurrerago baieztatuko dira.

Parte hartzeko ereduak hauek dira:

- Stand INDIBIDUALA
- Stand PARTEKATUA

Eusko Jaurlaritzaren standak gehieneko enpresa kopuru bat izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, hautapena egin beharko da, izena emandako hurrenkerari zorrotz erreparatuz. Izen ematea osatuta egongo da baldin eta dokumentu guztiak aurkezten badira: ordainagiria, zinpeko aitopena eta izena emateko formularioa beteta.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren presentzia ere interesa duten enpresa kopuruaren arabera izango da, eta ezarritako gutxienekoa bete beharko da.

Oharrak:

1. Stand bikoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.
3. Standaren neurri zehatzak azokak segurtasun protokoloa baieztatzen duenean jakinaraziko dira.

Parte hartzearen kostua

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak EAEko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko du.

1. motako enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

- Stand indibiduala: 2.308,85 € + %21 BEZ = 2.793,7 €
- Stand partekatua: 1.154,42 € + %21 BEZ = 1.396,85 €

2. motako enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktiorik egon ez, eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

- Stand indibiduala: 3.848,08 € + %21 BEZ = 4.656,17 €
- Stand partekatua: 1.924,04 € + %21 BEZ = 2.328,08 €

3. motako enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produktioa egonda ere.

- Stand indibiduala: 5.387,32 € + %21 BEZ = 6.518,65 €
- Stand partekatua: 2.693,66 € + %21 BEZ = 3.259,32 €

Izena emateko kuota ordainketa eta faktura bakarrean egingo da.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



Izena emateko epea: 2021eko azaroaren 22a

Parte hartu nahi baduzu, leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta **ordainagiria eta zinpeko adierazpena** bidaltzea Jon Zabaletari, helbide honetara: jzbaleta@camaragipuzkoa.com

Enpresa parte hartzaileen **hautaketa** izena emateko **dokumentu guztiak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.**

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Fitxa horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako, standaren errotulurako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Behin enpresak baieztatzen badu azokara joango dela, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko azoka egiten bada. Azoka ez bada egiten, berriz, HAZIk dagokion zenbatekoa itzuliko du.

IZENA EMATEKO KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da.

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: **"Enpresaren izena + GOURMET 2022"**.

ZINPEKO ADIERAZPENA



Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek Zinpeko Adierazpen bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

IZENA EMATEKO EPEA: 2021eko azaroaren 22a

HAZiko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, parte hartzea baieztatu eta gero.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



GARRANTZITSUA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak azokan parte hartuko duenik. **Izena emateko epea amaitzen** denean (**2021eko azaroaren 22a**) **BAIEZTATUKO** da parte hartzea.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, STANDEAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino **handiagoa** bada, hautatutako enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK



Espazioa kontratatzea

Espazio batekin parte hartuko da, zeina interesa duten enpresen artean banatuko baita, azokaren antolakuntzak ezarritako osasun neurrien eta segurtasun protokoloen arabera.

Pabiloiaren dekorazioa

Standaren oinarrizko dekorazioa eta altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko erakustokiko erakusketari guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

Mahai 1 eta 4 aulki, mostradorea, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta hozkailuarekiko biltegia. Harraska erabilera komunitarioko eremu batean egongo da.

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Ez da itzultzeko garraiorik antolatuko.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura, eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira. Esaten zaien orduan, enpresak derri gor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.

Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak. Hala ere, enpresa bakoitzaren ardura izango da norbere stand garbiketa aldetik baldintza egokietan mantentzea.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

Hotz kamerak eta beste etxetresna batzuk

Enpresak eskatutako hotz ganberen edo bestelako etxetresna elektrikoen alokairua enpresak berak ordainduko du. Dena dela, Eusko Jaurlaritza enpresen esanetara egongo da zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko, eta hornitzaileak enpresari fakturatuko dio zuzenean.

Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak behar diren tramite guztiak egingo ditu enpresa guztiak azokaren webgune ofizialean eta katalogo ofizialean ager daitezen (IZENA EMATEKO FORMULARIOAN jasotako datuak agertuko dira).